



ATE IREKIEN JARDUNALDIA PEDAGOGIA

Nori zuzenduak?

Pedagogian Graduko ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten ikasleei

Sarrera probak 2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Orientazio Jardunaldi honek bi atal ezberdin izango ditu eta erabat **online** egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **[izena emateko orria](#)** betez. Epea **2021eko apirilaren 18an** amaituko da.

Jardunaldien helburua

Pedagogian Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Jardunaldiaren egitura

Bilera informatibo orokorra

Apirilak 23, ostirala, 15:00etan

Ordu beteko bilera informatiboan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak,osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

Espezialitateko irakasleekin saioak

Apirilak 23, ostirala, 16:00etan

Pedagogiako ikasketa plana osatzen duten materia ezberdinen irakasleek parte hartuko dute.

- Espezialitate irakasgaiak eta dagozkien jarduerak aurkeztea.
- Sarrera probaren ariketa ezberdinen inguruko orientazio zehatza.
- Irakasleen eskutik arreta pertsonalizatua
- Topaketaren iraupena: 3 ordu

Izena ematen dutenek esteka bat jasoko dute online saio bakoitzaren bezperan.

Pedagogian jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Maite Bilbao Pedagogia, Kultura eta pentsamendua, eta Gorputz tekniken departamentuko buruarekin: **mbilbao@musikene.eus**